



Elkar kateatuz, herrialdez herrialde izango dira txapelketak

Irailean hasi eta martxora bitarte, lau herrialdeetako txapelketako izango dira: Bizkaikoa, Nafarroakoa, Xilaba eta Arabakoa. Atzetik dator Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa, 2026an. Hau ere irailean hasiko da eta abenduaren 20an izango da finala, Nafarroa Arenan.

Udazkena txapelketaz betea dator. Hasten lehena Bizkaiko Txapelketa izango da, irailaren 28an, Urdulizen. Astebetera ekingo dio bidea Nafarroako Txapelketak, urriaren 4an, Auritzen.

Elkar lotuz egingo dute, gutxi gehiago, urte amaierarainoko bidea bi txapelketek. Ekiten bigarrena baina amaitzen lehena izango da Nafarroakoa: azaroaren amaieran jokatu da finala, 29an; lehendabizikoz, Nafarroa Arenan. Bizkaiko finalak ere izango du aldaketa. Azken txapelketetan finala Bilbao Arenan izan bada ere, aurtengoa Casillan egitea erabaki da.

Tartean, behin Nafarroako finala pasata, hasiko da Xilabako lehen fasea, azaroaren 8an, Bidarten. Urte amaieran abiatu eta

2026aren hasieran amaituko da; izan ere, Xilabako finala urtarrilaren 31n izango da, Donibane Lohizuneko Jai Alai pilotalekuan.

Behin Xilaba amaituta, Arabak hartuko dio lekukoa. Otsailean hasiko da Arabako Txapelketa, lehen larunbatarekin, eta martxoaren 28an bukatuko da. Gasteizko Europa Jauregian izango da finala eta horrekin amaitutzat emango dira herrialdeetako txapelketak, aurten Euskal Herriko Bertsolari Txapelketarako puntuagarriak izango direnak.

Datorren urtean, Euskal Herrikoa

2026an izango da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa, eta horra begira, Arabatik, Nafarroatik eta Xilabatik bina

bertsolari gehiago sailkatuko dira. Hortaz, Euskal Herrikoan 36 bertsolari izatetik 42 izatera pasako dira. Ondorioz, lehen faseak, saio bat gehiago izango du: sei beharrean, zazpi. Zazpi saio eta zazpi lurraldeetara iritsiko da, gainera.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finala 2026ko abenduaren 20an izango da, igandearekin, Nafarroa Arenan. Azken txapelketako finala ere han jokatu zen, eta datorrena ere han izango da.



**JANIRE
ARRIZABALAGA
MUNDUATE**

**XLIX. LIZARDI SARIKO
TXAPELDUNA**

ZARAUTZ. 2025-09-05

Doinua: Hogeigarren urtera III

Joe, a ze sorpresa!
ta ze poz eztanda!
Jada nire zorteak
joko zuen langa.
"Aupa Maddi" Leioan
biok kamarada
batera hau lortzeak
sortu dit zirrara.
Begiratu atzean
dugun ilarara
garaipen ta galeran
kolektibo gara
(begiratu atzean
dugun ilarara)
ni hementxe banago
zuen errua da.



Nafarroa Arenan jokatu da 2026ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finala. // Gari Garaialde

Bizkaiko Txapelketa, egitura berriarekin

Bi urterik behin egiten den txapelketa aldiro izaten da, kasik, berdina; eta, kontrara, aldiro desberdina. Autengoak hasieratik dakartza berrikuntzak eta aldaketak, egitura aldaketarekin baitator. Lehenengo fasean bost saio jokatu dira finalaurrekoak buelta bitara jokatu dira eta, azkenik, finala jokatu da.

Egiturarena ez da aurtengo aldaketa bakarra izango, ordea. Izan ere, azken edizioetan finala Bilbao Arenan jokatu bada ere, aurtan Casillan egitea erabaki du Talde Antolatzaileak.

LEHEN FASEA		
Irailak 28	Urduliz	Kultur etxea
Urriak 4	Lekeitio	Ikusgarri zinema
Urriak 5	Mungia	Olalde aretoa
Urriak 11	Galdakao	Torrezabal kultur etxea
Urriak 12	Getxo	Muxikebarri, Arrigunaga aretoa
FINALAURREKOAK 1. BUELTA		
Urriak 26	Zeanuri	Ibarreta frontoia
Azaroak 2	Abadiño	Probalekua
Azaroak 9	Barakaldo	Lasesarre kiroldegia
FINALAURREKOAK 2. BUELTA		
Azaroak 15	Bermeo	Artza frontoia
Azaroak 22	Markina-Xemein	Uni frontoia
FINALA		
Abenduak 20	Bilbo	Casilla



Zornotzan elkartu dira Bizkaiko txapelketako parte hartzaileak, aurkezpenean. //XDZ

Nafarroako Txapelketa ere, Nafarroa Arenara

Bizkaian bezala, Nafarroan ere finala lekuz aldatuko da aurtan: Nafarroa Arenan izango da, azaroaren 29an. Azken Anaitasunako finala inoizko jendetsuena izan zen, eta ordutik Nafarroako bertsolaritza gorakada bizitzen ari dela esan du Nafarroako Bertsozale Elkartek, bai ikusle kopuruari zein bertsogintzari dagokionez. Horregatik erabaki dute finala lekuz aldatzea.

Saioak Nafarroako eremu desberdinetan izango dira, bertsolaritza lurralde osora hedatzeko helburuarekin.

Lehenengo fasean lau saio jokatu dira eta 24 bertsolarik kantatuko dute. Hortik 18 bertsolarik egingo dute aurrera eta finalaurrekoak jokatu dituzte; guztira, hiru. Azkenik finala izango da azaroaren 29an, Nafarroa Arenan.



Nafarroa Arenan bertan egin dute Nafarroako txapelketaren aurkezpenea. //XDZ

LEHEN FASEA		
Urriak 4	Auritz	Kultur etxea
Urriak 11	Mutiloa	Arangurengo kultur etxea
Urriak 18	Irurita	Gizarte Bilgunea
Urriak 26	Los Arcos	Kultur etxea
FINALAURREKOAK		
Azaroak 1	Agoitz	Kultur etxea
Azaroak 8	Leitza	Herri Aretoa
Azaroak 16	Tafalla	Kulturgunea
FINALA		
Azaroak 29	Iruñea	Nafarroa Arena

Sarreraren salmenta, martxan

Gogoratu txapelketa guztietarako sarreraren www.bertsosarrerak.eus atarian dituzuela. Sarrerarik geratuko balitz, saioetan txarteldegia zabalduko da.

Bestalde, txapelketaren jarraipena egin ahal izateko www.bertsozale.eus webgunean eta elkartearen sareetan informazioa eskainiko da. Horrez gain, www.bertsoa.eus webgunean saioetako laburpenak ikusi ahal izango da. Azkenik, Hitzetik Hortzera saioak ere jarraipen berezia egingo die txapelketei.

Andrea Lopetegi: "ETBn euskal kulturari leku gehiago egitea ezinbestekoa da, are soilik euskaraz egiten den eta egin daitekeen kulturari"

Lehen kolpean ez du aurpegi berria aurtengo Hitzetik Hortzera saioak, Mirari Martiarena da aurkezlea eta ohiko formatua izango du. Kamera atzean bai, ordea. Andrea Lopetegi Lopez (Zarautz, 1992) izango da zuzendari berria, Bertsozale Elkarteko ikus-entzunezko koordinatzailea. Behin Hitzetik Hortzeraren denboraldi amaituta ekin zion Elkarteko bideari Lopetegik, eta aurtengoaren gidaritzan arituko da. Lemazain berria, baina ohiko trainerua izango ditu saioak.

Hitzetik Hortzeraren aldaketa nabarmenetakoa zara, baina aldaketarik handiena zuretzako da. Lan leku berria eta egiteko berria. Nola heldu diozu erronkari?

Ilusio eta gogo handiz heldu diot erronka berri honi. Lan talde ederrarekin egin dut topo. Lehenengo egunetik eroso sentiarazi naute, eta hori gauza ederra da. Bestalde, Gaizka Azkaratek ere asko lagundu dit egitekoen zerrendarekin, eta asko eskertzen diot. Ardura handia dela uste dut, beraz, nire gogo eta jakintza guztiak proiektuan islatzen ahaleginduko naiz. Lehen esan bezala, Hitzetik Hortzeran ez nago bakarrik, esperientzia handia duten kideekin ari naiz: Mirari Martiarena, Haritz Arrizabalaga eta Irene Tapia. Eta beraiekin batera, aurten ere, mimo handiz egingo ditugu saioak.

“Guztira 34 saio izango dira, aurreko urtean baino bi gehiago”



Andrea Lopetegi, Bertsozale Elkarteko ikus-entzunezko koordinatzailea. //XDZ

Ez da, ordea, aldaketa bakarra. Aurtengo denboraldiak bi saio gehiago izango ditu.

Denboraldia irailaren 13an hasi zen eta maiatzaren 30ean amaituko da. Guztira 34 saio izango dira, aurreko urtean baino bi gehiago, bai. Pantailan denbora gehiagoz egongo gara, eta kontuan izanda elkartearen bozgoragailurik eta erakusleihorik handienetakoa dela, garrantzitsua iruditzen zait denboraldia

“Kontuan izanda elkartearen bozgoragailurik eta erakusleihorik handienetakoa dela, garrantzitsua iruditzen zait denboraldia luzatzea”

luzatzea. Horrez gain, ETBn euskal kulturari leku gehiago egitea ezinbestekoa da, are soilik euskaraz egiten den eta egin daitekeen kulturari: gakoa dela uste dut.

Txapelketaz txapelketa egingo dugu ikasturtea. Hitzetik Hortzeran ere eragingo du horrek.

Txapelketak gertutik jarraituko ditugu Hitzetik Hortzeran. Udazken honetan, esaterako, asteroko saioetan jarraipena egingo diegu ate joka dauden Nafarroako eta Bizkaiko txapelketei, eta finalak zuzenean emitituko ditugu. Finalen biharamunetan saio bereziak egingo ditugu txapelaldunen elkarriketekin eta finaletak bertsoaldiekin.

Baina bertsoa ez da soilik txapelketa, eta HH ere ez da soilik txapelketa izango...

Ez, aldiro protagonista bat edo batzuk izango ditugu, euskal kulturaren eta bertsogintzaren ertz desberdin bat ezagutzeko aukera emango digutenak. Gainera, plazetako bertso saioak ikus-entzuteko aukera egongo da, baita bertso jarriak ere.



Hitzetik Hortzerako lantaldea. //XDZ



Puntua jarrita

EKHIÑE ZAPIAIN

Bittori, zaila da galdetzen didazuna erantzutea. Zerk eragiten ote didan plazera, zerk zoriontasuna... Eginen nizuke zerredatxo bat, buruari gehiegi eragin gabe. Baina bai; badakit hau bertsoaritzari buruz izan behar dela.

Oroitzen dut ikastolan lehendabiziko bertsoaritzaklasea izan genuenean gure izenarekin erimatuko zuen koplak bat osatzeko zeregina jarri zigutela. Nire izena, bortzirietan darabilgun euskalkian behintzat, ez da errimak topatzeko hauta zenezakeen hitzik errezena. Hala ere, bururatu zaitzaidan Lesakan banuela lagun bat, eta bere izena nirearen antzeko eran bukatzen zela. Sartu nuen zazpi-seian, ahal gisan. Oraindik ere gogoan dut klase bukaera ailegatzeko neskak haren zoriontasuna.

Ez dut ahantziko nire urtebetetze eguna zela bertso udalekuetako lehendabiziko aldi hartan. Urtebetetzeak erromantizatzeko joera ere badut tarteka, eta pena pixka bat eman zidan autobuseko inork ez jakiteak egun hartan hamazazpi betetzen nituela. Hala ere, ulertzen ninduen jendea ezagutu nuen hamar egun horietan. Nire antza zeukatenak, nahiz zertan ez jakin. Zoriontsu egiten nindutenak. Nire moduan txunditzen zirenak bertsoari zenbaitekin. Gerora, ni ere txunditu naiz beraietako batzuk oholtzan ikustean.

Honezkero, badakit plazera eragiten didala bertsoak. Baina jende aitzinean bapatean aritu nintzen lehendabiziko aldi hura ez da izan negarrez bukatu dudana saio-oste bakarra. Nik ere galdetzen diot oraindik sarri nire buruari ea benetan badaukadan zentzuzko zerbait kantatzeko. Ea urduritasuna kontrolatzera ailegatu ote naizen inoiz. Ea hartuko dudana serio noizbait entrentzearena. Ea bertsoak bene-benetan egiten nauen zoriontsu.

Eta halakoetan oroitzen dut nola ailegatu naizen honaino. Zer eta batez ere nor eman didan bertsoaritzak. Aditzen ditut ondokoak erraten haiek ere pereza sentitzen dutela saioa hasi baino lehen. Haiek ere nekatuta daudela; ez dutela gogorik. Haiek ere ez direla konforme gelditu kantatu dutenarekin. Eta orduan ulertzen dut zoriontasuna ezin dela iraunkorra izan. Sentitzen duzula ohartzen zarenerako desagertu egiten dela.

Gainontzean, ba hori: egunsentia ikustea, norbaitek janari goxoa prestatzea, mendi-buelta bat zakurrekin, herrian lagunekin zerbait hartzea, edo ilunabarraz gozatzea. Bizitzako plazerak denak, eta zoriontsu egiten nautenak. Hortxe aipaturiko zerrendatxoa.

Haira, zurekin ere egoten naiz pozik. Zure gailetak sartuko nituzke nire plazeraren zerrendan. Bertsoarako inspirazioa aurkitzen ere lagundu izan didate. Kontaiguzu, zer da zuri bertsoan egiterako orduan lagungarri zaizuna? Baduzu kantuan irauteko sekreturik?

Koplak

Helduentzako bertso eskolak eskainiko dituzte Hendaian eta Lartzabalen

Bertsularien Lagunak elkartearen eskutik, bi helduentzako bertso eskola egongo dira Hendaian eta Lartzabalen 2025/2026 ikasturtean. Hendaian ostiraletan izango da; Lartzabalen, asteazkenetan. Izena eman nahi izanez gero www.bertsozale.eus atarian dago aukera eta informazio gehiago behar izanez gero, idatzi helbide honetara: bertsolaritzairakasleak@gmail.com.

Poto-Finixa



Irudien babesa

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Emakume eta genero disidenteentzako trebatze saioak antolatu ditu Gipuzkoako Elkartek

2026ko Gipuzkoako Herriartekoa aitzakiatzat hartuta, emakume eta genero disidenteentzako trebatze saioak antolatu ditu Gipuzkoako Bertsozale Elkartek. Eskualdeka antolatuko dira, eta irailean eta urrian zehar izango dira; data zehatzak eskualdeka zabalduko dira. Parte hartzeko interesa izanez gero, www.bertsozale.eus/gipuzkoa atarian dago izena emateko aukera.

1TZ4L1 3T4 P1ZTU

B3RTSO 3410 3L3KTRON1K04

Estreinaldia

Urriak 3, 22:00. Eibar, Errebal plaza